

### **Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz, honako gai hauen berri ematen dizugu:

**Tratamenduaren arduraduna:** CENTRO DE EMPRESAS E INNOVACIÓN DE ÁLAVA, S.A.; IFZ: A01046937; helbidea: Albert Einstein kalea 15, 01510 Miñao (Araba).

**Datuak Babesteko Ordez kariaren harremanetarako datuak:** Albert Einstein kalea 15, 01510 Miñao (Araba); helbide elektronikoa: dpo@bicaraba.eus.

**Tratamenduaren helburua:** ematen dizkiguzun datu pertsonalak formulario honen bidez egiten diguzun kontsulta edo eskaera kudeatzeko eta erantzuteko erabiltzen ditugula jakinarazten dizugu.

**Eskatzen dizkizugun datu pertsonalak:** zuri buruz biltzen ditugun datu pertsonalak, izartxo markatuta, egiten duzun kontsulta edo eskaera kudeatzeko beharrezkoak direnak dira, eta, beraz, nahitaez eman behar dira, eta, hala egin ezean, ezingo dugu erantzun.

**Tratamenduaren legitimazioa:** zure datu pertsonalen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa da hura beharrezkoa dela formularioa bete eta bidaltzean sortzen den kontratu-harremana kudeatzeko eta, beraz, egiten duzun kontsulta edo eskaera kudeatzeko eta erantzuteko.

**Datuen hartzaileak:** ematen dizkiguzun datu pertsonalak ez zaizkio beste inori jakinaraziko, legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa denean izan ezik.

Hala ere, gai batzuetarako hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen ditugu, tratamenduaren arduradun gisa jarduten dutenak, eta haiekin sinatu dugu datuen tratamendurako dagokion kontratua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 28.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Datuen nazioarteko transferentziak:** jakinarazten dizugu tratamenduaren arduradun gisa jarduten duten hornitzaileek eskainitako zerbitzuak erabiltzen ditugula informazioaren kudeaketari, administrazioei eta komunikazioei buruzko zenbait kontutarako, eta Europar Batasunetik eta Europako Esparru Ekonomikotik kanpo egon arren, datuen erabilera dakarten datuen nazioarteko transferentziek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 46.2 c) artikuluan jasotako berme

egokiak dituztela (Europako Batzordeak onartutako kontratu-klausula tipoak), eta, gainera, EBko Datuen Pribatutasunaren Esparruan ziurtatuta daudela.

**Datuak gordetzeko epea:** ematen dizkiguzun datu pertsonalak soilik gordeko dira egiten diguzun kontsulta edo eskaera kudeatzen duzun bitartean, eta, beraz, tramitazioa amaitutakoan, ezabatu egingo dira.

Interesdunaren eskubideak zure datuen tratamenduari dagokionez: zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo eramateko eska dezakezu. Horretarako, idatzi bat bidali behar duzu ARABAKO ENPRESA ETA BERRIKUNTZA ZENTROA SAra (Albert Einstein kalea 15, 01510 PK, Miñao, Araba), edo, bestela, mezu elektronikoko bat bidali behar duzu [dpo@bicaraba.eus](mailto:dpo@bicaraba.eus) helbidera.

**Erreklamazioa, kontrol-agintaritzaren aurrean:** Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren aurrean aurkez dezakezu erreklamazioa (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3. solairua, 01008 PK, Vitoria-Gasteiz, Araba).